

SAGASTIA-MANZANAL

Sagastietako jardueren egutegi praktikoa
(ekaina, uztaila eta abuztua).

SAGARDOAREN LURRALDEA - 10/07/2015 · 9:14

Sin comentarios



Garai honetan egin beharreko lanak hauek dira:

**EKAINA
LURRA-ONGARRIKETA**

Ekoizpen integratuan aritzen zarenentzat nitrogenoa bigarren aldiz botatzeko garaia da. Ekoizpen ekologikoetan martxo bukaeran botata izan behar zen. Horrez gain, belarra moztu behar da arbola inguruetan.

ARBOLEN FORMAIZIOA

Udako kimaketa egiten hasi gitezke arbolaren indarra gutxiagotu nahi badugu, udako kimaketa ilbeheran egingo dugu. Bestalde, indartzea nahi badugu, ilgoran

egingo dugu. Ardatzaren nagusitasuna aseguratatu behar da, azken 15 zm-ak kompetentzia egingo lioketen adarrak gabe utzita. Horrez gain, azpiko adarrak kendu eta angelu oso itxiarekin datozenak eta baita ardatzarentzat kompetentzia izango direnak ere. Horrez gain, altsumak ere kendu eta oinarrian fruta dakarten adarrak despuntatu. Kopa itxura dituzten arboletan kopa barrura zuzentzen diren adarrak kendu.

Urte bat edo biko sagastietan: ilgoran kimatu. Sagasti helduetarako: ilbeheran kimatu.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Carpocapsaren lehen generazioa dugu orain. Tranpetan 4 tximeleta harra aste beteko epean azaltzen badira, orduan tratatu behar da. Zorriaren erasoak izan liteke eta adi, arbola gazteenetan bereziki.

Garai honetan monilia sortzen dituen adar eta fruituen usteldurak garbi ikusten dira. Gaixotasun hau ez zabaltzeko tratamendu bat egin daiteke. Fitoftora arazoak izatekotan, lur azpian dagoen ur soberari irteera bat eman behar zaio, lurzorua subsolatuz.

**UZTAILA-ABUZTUA
LURRA-ONGARRIKETA**

Aurrez egin ez den kasuetan, belarra moztu. Hurrengo neguan sagasti berri bat jarri behar badugu, lurra prestatzeko garairik egokiena da.

ARBOLEN FORMAIZIOA

Uztailean udako kimaketa egin.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Sagar harraren bigarren generazioa hasten da uztailean. Feromona tranpa bat jartzea beharrezkoa da, jakiteko bigarren generazio hau noiz datorren, eta modu horretan jakingo dugu noiz egin tratamenduak izurritearen aurka. Zorri lanigeroaren azalpenaren gorakada ematekotan, gehien bat urteko adarretan arbolaren goiko aldean, tratamendu bat ematea komenigarria izango liteke. Tratamendu hau ematerakoan ur bolumen handiarekin egin behar da, produktua arbolaren zirrikitu guztietan sartu ahal izateko.

Artikulu eta argazkiak: Aitor Etxeandia (SAGARLAN S.L.). Fruitugintzan aholkularia.

Iturria: Sagardoaren Lurraldea 39 Boletina

Sagardoaren Lurraldea boletinean izena eman

Tags: calendario, egutegia, Manzana, Sagarra, Sagastia, manzanal

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Agenda-Agenda
Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Prensa-Prensa
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Sin categoría
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Santa Ana 2015, XL.
Sagardo Eguna
Astigarragan.



Sagardoetxeako fototeka.



Sagardoaren kulturaren
inguruko bideoak,
#tweet-ak, bisitak...

Anterior post

Servicio de la sagardoa a presión.Presio bidezko sagardoa-ren sistema.

Siguiente post

SAGARDOAREN HIZTEGIA: El mosto durante la fermentación (Parte 2).SAGARDOAREN

HIZTEGIA: Muztioa irakinaldian (2. zatia).



SAGARDOAREN
HIZTEGIA: Muztioa
irakinaldian (2. zatia).



Sagastietako jardueren
egutegi praktikoa (ekaina,
uztaila eta abuztua).

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurraldea en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Jarras también en las antiguas sagardotegis | pitxTapitch en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Sagardoaren Lurraldea en “Sagastiak loretan” ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

Marisa en “Sagastiak loretan” ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

m. petrus en “Sagastiak loretan eta ardiak larretan” argazki lehiaketa Facebook-en.